

altza

## Sexualitateaz bada zer ikasia

**Altzako Institutu Teknikoak**

hezilan plangintza jarri du martxan otsailerako. Besteak beste, honako hauek izango dira eskainiko diren ikastaroak: 60 orduko iraupena izango duen Planoen Interpretazio ikastaroa, Eraikuntzetako Instalazio Elektrikoa (40 ordu), Instalazio eta Eraikuntzen Soldaketa (60 ordu) eta Papereztatze eta Estalketa Arinak (120 ordu). Informazio gehiago nahi izanez gero, dei ezazue 35 79 11 telefono zenbakira.



Kale Hezitzaileek 10 gazte prestatu dituzte sexualitate gaien inguruan ikastaroak eta hitzaldiak eman ditzaten.

**ELA sindikatuak** hitzaldiak antolatu ditu otsailerako. Hilaren 7an Garapena Elkarteak kidea den Mari Carmen Muñoz «Cooperación: una experiencia en Camerun» gaiaz mintzatuko da Casaresen arratseko 19.30etatik aurrera.

Otsailaren 9an: «Cooperación en el tercer mundo...según como» izenburupean CEPA, Garapena, Medicus Mundi, Elizbarrutiko Misioak eta Muga Gaietarako elkarteetako kideek mahai ingurua antolatu dute 19.30etatik aurrera Casaresen.

Altza eta Larraxoko emakume elkarteak hasi dira dagoeneko martxoaren 8an ospatuko den «Emakumearen Nazioarteko eguna» prestatzen.

«Los jóvenes hablan de sexualidad» izenburupean, Altzako gazte talde batek sexualitateari buruzko hitzaldia emango du emakumeentzat bereziki, otsailaren 23an Casares Kultur Etxean 16.00etan.

Elkartea Berri, Ostadar eta Ustai Belar elkarteek, Casares Kultur Etxeak eta kale hezitzaileek antolatu dute hitzaldi hau.

**Gazteak irakasle**

Osasun agenteak izateko ikasketak burutu ondoren, 10 gazte osatutako talde honi iritsi zaio sexu kontuetan ezagutzen dutena helduei eskaintzeko ordua eta horretarako beraien lana atal desberdinetan banatu dute: emakume taldeei eskainitako aipatu hitzaldia, kartel txapelketa, sexu irratsaioak eta sexu ikastaroak.

Lan egitarau honen bitartez, eta kale hezitzaileen laguntzaz, gazte talde honek sexu kontuez

jakiteko interesa izan behar dela erakutsi nahi dio pertsona orori, adina kontutan izan gabe.

Kale hezitzaileak duela bi urte hasi ziren sexu ikastaroak ematen. Poliki-poliki, hainbat gazte, osasun agente bihurtu zen. Aurten praktikan jarriko duten esperientzia berri honen bitartez, paperak aldatu egingo dira, eta helduak gazteen irakasle izan ordez, gazteek irakatsiko diete helduei.

LARRAITZ GARMENDIA (TFNOA.: 391267)

ARGAZKIA: XIMON

**HIPER LARRATXO**

Opariak - Barruko Arropa - Tresneriak  
Jostailuak - Bisuteria

Bertsolari Txirrita 10 • 40 05 95 DONOSTIA

**ILEAPAINDEGIA**

Larratxo, 94  
Tfnoa.: 35 71 66